

Kultur txangoak



Martxotik urrira arte

Inguruko lekuetako kultura ezagutzeko, bertatik betara bisita egitea baino modu hoberik ez dago. 1, 2, 3 eta 4 eguneko kultur txangoen programa honi esker, kultura ardatz duten hainbat txango egiteko aukera izango dute. Ez galdu aukera hau eta ezagutu itzazu aurtengo proposamenak.

Informazioa

Parte-hartzaileak

Arabarrentzako irteerak, euren kabuz balia daitezten. Mugikortasun urriko pertsonak kontsultatu.

Izen-emateak

Inskripzioak heldutako hurrenkeraren arabera egingo dira. Pertsona bakoitzak gehienez bi pertsona apuntatu ahal izango ditu.

Ordaintzeko modua

Ordainketa edozein kreditu-txartelekin egingo da. Txartelik ez baduzu, kontu-zenbaki bat emango dizugu, eta erreserbaren egunean egin ahal izango duzu ordainketa.

Ohar orokorrak

- Banakako logela kopurua hotelen erabilgarritasunaren arabera izango da, eta kostu gehigarria izango du. Logela hirukoitzak, hotelen erabilgarritasunaren arabera.
- Ezin bada joan, irteeraren zenbatekoa itzuliko da, betiere antolatzaileek eskatutako gutxienerako aurrerapenarekin jakinarazten bada (kontsultatu).
- Irteeraren zenbatekoa ez da itzuliko adostutako orduan aurkezten ez badira.
- Irteera bakoitza egiteko, antolatzaileek zehaztutako gutxienerako parte-hartzaile talde bat egon beharko da.
- Erakundeak beretzat gordetzen du irteera baliogabetzeko eskubidea, bai eta ezinbesteko arrazoiengatik hura aldatzekoa ere.

Irteera lekua

- Bakea kalea, ospitalaren parean - Optika
- Europa: Txile kalea – Taxi geltokia

Izen-emateak

Kontsulta ezazu txango bakoitzaren izen-ematea jarraian: